

berria

18 Diciembre, 2016

PAÍS: España
PÁGINAS: 1-3
TARIFA: 13322 €
ÁREA: 2371 CM² - 279%

FRECUENCIA: Martes a domingos
O.J.D.:
E.G.M.: 57000
SECCIÓN: PORTADA



2016 - 12 - 18
XIV. urtea, 4.189. zenbakia

1,80€



Mugarria paperean

2 Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa sinatu dute Donostian, gizarte eragileen ekarpen eta tresna kolektibo bat, bazterketa gainditzen laguntzeko.

**Gaur
Gehigarri
berezia**



► 18 Diciembre, 2016

Euskalgintzako eta beste hizkuntza gutxitu batzuetako eragileak, atzo protokoloa eskuan hartuta. Aurrean, Xabier Paya Donostia 2016koa eta Paul Bilbao Kontseilukoa.

ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS



AHALDUNTZE SAIOA, ESKUBIDEAK JOMUGA

Sinatu dute Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Donostia 2016ren legatu nagusietako bat izango da. Hizkuntza gutxituen alde diharduten eragileek eduki dute aparteko protagonismoa protokoloa egiteko, eta aurrerantzean ere bai, nork bere egoerara egokitu beharko baititu neurriak.

Garikoitz Goikoetxea Donostia

Lehen urratsa bukatua da: sinatua dago Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideak ziurtatzea helburu hartuta, 185 neurri zehaztu dituzte. Besteak

beste, hizkuntza gutxituei ofizialtasuna eta lehenetsua ematea. «Egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzei lehenetsunezko tratuera ematea berdintasunerako urrats bezala ulertzen dugu». Hori eskatu dute: eskubide berberak izatea hizkuntza batzuetako eta besteetako hiztunek. Hori bideratzeko, kaiera bat egingo dute hizkuntza gutxitu bakoitze-

ko eragileek, protokoloa ardatz dutelarik. Hori izango da hurrengo pausoa. Donostia 2016ren legatu nagusietako bat da protokoloa.

Testua da. Liburu bat. Bi urteko lanaren emaitza. Neurri sorta bat, hiztunen eskubideak ziurtatzeko. Baina hori baino gehiago ere bada, atzoko ekitaldian nabarmendu zuten. Segida da: beste pausoa bat hizkuntza gutxituak babes-

teko bidean. Duela hogeitun urte, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala egin zuten Bartzelonan, eta haren jarraipeneko pausoa da Donostiako protokoloa: han zehaztutako eskubideak bermatzeko agiria. Testua. Liburua. Baina gehiago ere bai: argazkiak du indar berezia. Ahalduntze eta elkar hartze irudiak. Hizkuntza gutxituen alde ari diren eragileenak.

Testuinguru horren ispilu, ekitaldi handia egin zuten Donostian atzo, protokoloaren aurkezpenan. Kursoalean –hain justu, Hizkuntza Aniztasunaren Foroa egin dute han aurreko bi egunetan–. Euskalgintzako eragileetako ordezkari handia izan zen ekitaldian, baita herritarrak ere –amaitu egin ziren gonbidapenak–. Alderdi politikoetako ordezkariak



► 18 Diciembre, 2016

IGANDEKO BERRIA
 2016ko abenduaren 18a

Hizkuntza eskubideak Donostiako protokoloa

ere bai, eta erakundeetakoak: Jo-
 xean Muñoz Eusko Jaurlaritzako
 Kultura sailburuordea, Mikel
 Arregi Euskarabideko zuzendar-
 ia, Mikel Irizar Gipuzkoako Hiz-
 kuntza Berdintasuneko zuzendar-
 ia, Miren Azkarate Donostiako
 Euskara zinegotzia, Eider Mendo-
 za Gipuzkoako Batzar Nagusietako
 presidentea... Jaurlaritzako
 Hizkuntza Politikarako Sailbu-
 ruordetzako arduradunik ez zen.

Hiriburutzarekin bat

Donostia 2016 kultura hiriburu-
 tzaren altxoan egin dute protoko-
 loa. Estua da bien arteko harre-
 mana, Xabier Payaren iritzirako
 –Donostia 2016ko kultur progra-
 maren arduraduna da–: «Proto-
 koloak ezin hobeto islatzen du
 Donostia 2016». Hiru kontzeptu
 erabili ditu hitzaldian. Bat: biziki-
 detza eleaniztuna, biek behar du-
 telakoan elkar –bizikidetzak ele-
 aniztasuna eta eleaniztasunak bi-
 zikidetzak–. Bi: elkartasun linguis-
 tikoak, gainerako hizkuntzen alde
 egitea. Eta hiru: konpromisoa. Bi
 aldetatik hori ere: «eskertu» egin
 du eragile andana batek agertuta-
 ko konpromisoa protokoloa egi-
 teko, eta «eskatu» ere egin du
 konpromisoa, neurriak betetzeko.

Erabakiak hartu beharraz aritu
 da: «Adierazpenak ez dira nahi-
 koa». Horren erakusgarri, joan
 den asteko albiste bat aipatu du:
 Edwin Bensonen heriotza, man-
 dan hizkuntzaren azken hiztuna-
 rena. Protokoloak neurri bide
 emateko esperantza du: «Euro-
 pako elkarbizitza eleaniztunerako
 bidean, mugarría da protokoloa».

Europako beste hizkuntza gu-
 txitu batzuetako eragileak ere ar-
 tu dira protokoloan lanean, eta
 neurriak eskatu dituzte haiek ere.
 Berdintasuna galdegin dute. Ba-
 besa, benetakoa. Protokoloan ja-
 sotako neurriak betetzeko eskatu
 du, esate baterako, Galiziako Ma-
 ria Pilar Garcia Negrok, horrela
 «hitzeko demokraziatik beneta-
 ko demokraziara» pasatzeko.
 «Arrangura izango genuke esku-
 bide batzuk aitortuko balitzaizki-
 gu, baina erabili ahal ez izateko».

Eragileen garrantzia

Bartzelonan orain hogeí urte si-
 natutako deklarazioaren bultza-
 zailleetako bat da Garcia Negro.
 Txalo artean egin diete aitortza
 hari eta Aureli Argemiri, deklara-
 zioaren nondik norakoak oroitu
 dituztenean. Txaloak etengabeak
 izan dira ekitaldian, izatez: proto-
 koloa bultzatzen aritu diren era-
 kundeetako ordezkariak, batzor-
 de zientifikoan jardun direnei,
 euskalgintzako eragileei eta beste
 hizkuntza gutxitu batzuetakoei...



Hizkuntza gutxituetako eragileek sinatu zuten protokoloa atzo. A. LOIOLA / ARP



Joan Mari Torrealdai egin zuen ekitaldiko azken hitzaldia. ARITZ LOIOLA / ARP



Protokoloaren talde antolatzaileen aritu diren erakundeetako ordezkariak, hizlari. ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS



Gaurtik aurrera, eragileek protokoloa irakurri, aztertu eta nola aplikatu behar den erabakitzen hasiko gara»

Paul Bilbao
 Kontseiluko idazkari nagusia

«Europako elkarbizitza eleaniztunerako bidean, mugarría da Donostiako protokoloa»

Xabier Paya
 Donostia 2016ko kultur arduraduna

«Arrangura izango genuke eskubide batzuk aitortuko balitzaizkigu, baina erabili ahal ez izateko»

Maria Pilar Garcia Negro
 Soziolinguista galiziarra

«Aurretartean ere, hizkuntza komunitateak eutsi beharko dio normalizazio soziolinguistikoari»

Joan Mari Torrealdai
 Jakin fundazioko lehendakaria

Lan mardula izan da. 185 neurri txertatu dituzte Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan, baina 400 ekarpen baino gehiago jaso dituzte bidean. Jardun horren balioa goraiatu du Paul Bilbao, Kontseiluko idazkari nagusia: «Protokoloa ekarpen kolektiboaren emaitza». Elkartasun linguistikoa aipatu du hark ere. «Hau egiteko gai izan bagara, gai gara geure hizkuntzetan bizitzeko baldintza egokiak sortzeko».